

## II. ERANSKINA

### INTERES-GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA

Azpiproiektua: C23.I1.P02.S17 Euskal Autonomia Erkidegoa, «Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa»

Tresna juridikoa: Dirulaguntza

Espedientea:

Erakunde onuraduna:

IFZ:

Aurretik aipatutako dirulaguntzaren prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, sinatzaileak, espedientea prestatu, izapidetu eta exekutatzeko prozesuan parte-hartzaile denez, hau adierazten du:

Lehenengoa.

Badakiela:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamenduaren (EBko finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua — «Interes-gatazkak» — zer dioen, eta interes-gatazka izaten dela: «funtzioak inpartzialki eta objektiboki betetzea kolokan dagoenean familia-arrazoiengatik, afektibitate-arrazoiengatik, kidetasun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».
2. 31/2022 Legeak (31/2022 Legea, abenduaren 23koa, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrena) hau ezartzen duela ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan: «Interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematiko eta automatizatua aplikatuko zaie entitate erabakitzaileen, betearazleen eta instrumentalen zerbitzura dauden enplegatu publikoei eta gainerako langileei, baldin eta, banaka edo kide anitzeko organoetako kide gisa, kontratuak adjudikatzeko edo dirulaguntzak emateko deskribatutako prozeduretan parte hartzen badute».

Bigarrena.

Adierazpen hau sinatzean, eta bere esku dagoen informazioa kontuan hartuta, ez dagoela/daudela sartuta ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren laugarren apartatuan aurreikusitako eran interes-gatazkatzat jo daitekeen eta dirulaguntzak emateko prozeduran eragina izan dezakeen egoeraren batean.

Hirugarrena.

Abian den prozeduraren edozein unetan edozein interes-gatazka sortzen bada eta halakoen berri badu(te) Lanbideren zuzendaria jakinaren gainean jarriko du(t)ela, atzeratu gabe.

Laugarrena.

Badaki(t)ela Interes-gatazkarik Ezaren Adierazpen bat faltsua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen ondorio diziplinarioei, administratiboei eta judizialei aurre egin beharko diela.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NANA)